

Oñatiko Udalak azalpenak eskatu dizkio Ertzaintzari, zapatu gauean gertatutakoa argitzeko

Datorren astean Bergarako ertzain etxeko buruekin batzartuko dira Oñatiko Udaleko zenbait ordezkari

Zapatu gauean izandako gertaerak argitu nahian dabil Oñatiko Udala. Hain zuzen ere, bi aldetako bertsioak ezagutzeko ahaleginean jardun du orain arte. Besteak beste, **harremanetan dira borra kolpeak jasan zituzten gazteekin**. “Geurekin hitz egiteko prestutasun osoa erakutsi dute. Gertatutakoari buruzko azalpenak eman dizkigute, xehetasun guztiekin”, argitu dute.

Bestalde, Ertzaintzarekin hitz egiteko ahaleginik ere egin dute, baina, orain artean, ez dute euren bertsioa ezagutzerik lortu. “Esan digutenez, taberna batean izandako liskarra besterik ez dute aktan jasota”, diote. **Gertaturikoa argitu guran jardun du Oñatiko Udalak astean zehar**, besteak beste, osteko urratsik eman beharrik balego. Hala, **Oñatiko Udaleko zenbait ordezkari datorren astean batuko dira Bergarako ertzain etxeko hainbat bururekin**.